f) No encontrarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halle incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– Para las ayudas a los proyectos de I+D y las ayudas a estudios de viabilidad técnica, además de los requisitos contenidos en el apartado anterior, deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Diruz laguntzeko eskatzen duen proiektuaren bidez enpresak abiaraziko duen I+G+B aurretik ere enpresak jada martxan zeukan I+G+B lanerako gehikuntza garbia izatea, eta enpresaren sektorearen hobekuntza orokorrerako baliagarri izan dadila, I+G+Bari dagokionez.

b) Proiektua, osorik edo neurriren batean, honako ikerketa horietako batekoa edo batzuetakoa izatea: oinarrizko ikerketa, ikerketa industriala edo garapen teknologikoa; proiektuak hainbat atal baldin baditu, aukera dago atal horiek aurrez aipatutako kategoria horietakoren baten barruan sailkatzeko.

3.– Enpresa gazte eta berritzaileen edota oinarri teknologikoko enpresa berrien proiektuetarako laguntzen kasuan, 1. paragrafoan aipatutako baldintzez gain, beste baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Diruz laguntzea nahi duen proiektuaren bidez enpresak abian jarriko duen I+G+B hori, aurretik ere enpresak jada martxan zeukan I+G+B lanerako gehikuntza garbia izatea. Baldintza hau bete beharrik ez daukate eskabidea aurkeztu duten urtean sortu diren enpresek.

b) Diruz laguntzea nahi duen proiektuaren bidez enpresak abian jarriko duen I+G+B hori enpresaren sektorearen hobekuntza orokorrerako baliagarri izan dadila, I+G+Bari dagokionez.

c) Enpresa txikia kategoriakoa izatea enpresa -Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an emandako 2003/361/EE gomendioko irizpideen arabera- bost urte baino gutxiago dela, laguntza emateko unean.

d) Enpresa berritzailea izatea, eta produktu, zerbitzu edo prozesu berritzaileak, edo bere sektoreko egoera teknologikoaren aldean nabarmen hobetutakoak, izateaz gain, arrisku teknologiko edo industriala daukatenak garatzea.

e) Eskatzaileak, onuradun izan daitekeenak, I+G arloan dauzkan gastuak bere funtzionamendu gastuen % 15 izatea, gutxienez, eskabidea eskatu aurreko hiru urteetatik batean; historial finantzariorik ez daukan enpresa berria bada, indarrean den ekitaldi fiskalaren auditoriaren arabera kalkulatuko da hori, alegia, kanpoko auditatzaile baten ziurtapenaren arabera.

f) Enpresa gazte eta berritzaile izategatik orain artean inoiz laguntzarik jaso gabea izatea.

4.– Jarduera eta zerbitzuetako prozesuak eta antolaketa berritzeko laguntzen kasuan, 1. paragrafoan aipatutako baldintzez gain, beste baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Diruz laguntzeko eskatzen duen proiektuaren bidez enpresak abiaraziko duen I+G+B aurretik ere enpresak jada martxan zeukan I+G+B lanerako gehikuntza garbia izatea, eta enpresaren sektorearen hobekuntza orokorrerako baliagarri izan dadila, I+G+Bari dagokionez.

a) Que la I+D+I que vaya ha acometer la empresa en el proyecto para el que solicita ayuda suponga un incremento neto sobre la actividad de I+D+I que ya realizaba la empresa, así como que contribuya a la mejora global del sector al que pertenece en cuanto a nivel de I+D+I.

b) Que el proyecto pertenezca íntegramente a una o varias de las siguientes investigaciones: investigación fundamental, investigación industrial o desarrollo tecnológico, pudiendo, si el proyecto consta de diferentes tareas, clasificarse éstas dentro de una de las diversas categorías precitadas.

3.– Para las ayudas a los proyectos de empresas jóvenes e innovadoras y/o las nuevas empresas de base tecnológica, además de los requisitos contenidos en el párrafo 1, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que la I+D+I que vaya ha acometer la empresa en el proyecto para el que solicita ayuda suponga un incremento neto sobre la actividad de I+D+I que ya realizaba la empresa. De este requisito están exentas las empresas que se constituyan en el año de presentación de la solicitud.

b) Que la I+D+I que vaya ha acometer la empresa en el proyecto para el que solicita ayuda contribuya a la mejora global del sector al que pertenece en cuanto a nivel de I+D+I.

c) Que la empresa tenga la categoría de pequeña empresa conforme a lo dispuesto en la Recomendación de la Comisión 2003/361/CE de 6 de mayo de 2003, con una antigüedad inferior a cinco años en el momento de concesión de la ayuda.

d) Que la empresa sea innovadora y desarrolle productos, servicios o procesos tecnológicamente novedosos o sustancialmente mejorados con respecto al estado tecnológico del sector al que pertenecen y que comporten riesgos tecnológicos o industriales.

e) Que los gastos de I+D del solicitante y potencial beneficiario representen un mínimo del 15% de su total de gastos de funcionamiento durante al menos uno de los tres años previos a la solicitud, o si se trata de una empresa nueva sin historial financiero, según la auditoria del ejercicio fiscal en curso, de conformidad con la certificación de un auditor externo.

f) No haber recibido nunca ayuda por el concepto de empresa joven e innovadora.

4.– Para las ayudas a la innovación en materia de procesos y organización en actividades y servicios, además de los requisitos contenidos en el párrafo 1 deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que la I+D+I que vaya ha acometer la empresa en el proyecto para el que solicita ayuda suponga un incremento neto sobre la actividad de I+D+I que ya realizaba la empresa, así como que contribuya a la mejora global del sector al que pertenece en cuanto a nivel de I+D+I.

b) Berrikuntza lotuta egotea informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilerarekin eta esplotazioarekin, antolaketako aldaketak eragitea, eta lotuta egotea ekoizpen-prozesuen hobekuntzarekin, ekoizteko moduan aldaketa nabarmenak sartuz edo ekoizpen-sistema berriak sartuz.

c) Proiektuak kudeatzaile identifikatua eta kualifikatua edukitzea, eta gastuak ere zehaztuta edukitzea.

d) Proiektuak berrikuntza ekartzea, edo hobekuntza nabarmena, proiektua aurreko egoeraren aldean. Berritzailea dela erakusteko, berritasunaren deskribapen zehatza egin beharko da, sektore berdineko beste enpresa batzuek gaur egun erabiltzen dituzten prozesu edo antolaketa-teknikekin alderatuta.

e) Proiektuak arrisku nabarmena izatea. Arriskua egon badagoela erakusteko, kontuan hartuko da enpresaren negozio-bolumenarekiko proiektuaren kostua zenbatekoa den, prozesua garatzeko zenbat denbora behar den, kostuen aldean prozesuen inguruko berrikuntzatik zenbateko irabazia espero den, eta porrot egiteko arriskua zenbatekoa den.

f) Laguntza jasotzekoa den proiektuaren emaitzak sistematikoki errepika daitekeen edo, kasuan kasu, ziurtatu edo patentatu daitekeen, arau, enpresa-eredu, metodologia edo kontzeptu ekartzea.

5.– Produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko elkarlan-proiektuetarako laguntzen kasuan, 1. paragrafoan aipatutako baldintzez gain, beste baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Baldin onuraduna berezko izaera juridikorik gabeko asoziazio-figuraren bat bada, kideetako bat lehen sektoreko ekoizlea izatea edo eraldaketa-industrian aritzea.

b) Elkarlan-proiektua ekoizpen-sektorerako mesedegarri izatea.

***9. artikulua.–*** Eskabideak eta agiriak.

1.– Laguntza-eskabideak aurkezteko agiri-ereduak dekretu honen I-II eranskinetan datoz. Berrikuntza eta Elikadura Industrien Zuzendaritzako titularrari aurkeztu behar zaio eskabidea, bai Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko bulegoetan bertan (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz) edo bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluak adierazitako beste edozein lekutan.

2.– Laguntza eskatzeko, ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

A) Orokorrean, dekretu honen 6. artikuluko a), b), c) eta d) paragrafoak jasotzen dituzten laguntza jasotzeko moduko jardueren kasuan:

b) Que la innovación guarde relación con el uso y explotación de tecnologías de la información y la comunicación (TIC), que introduzca cambios en la organización y que guarde relación con la mejora de los procesos productivos, introduciendo cambios significativos en la forma de producir, o nuevos sistemas de producción.

c) Que el proyecto esté dotado de un gestor identificado y cualificado y que tenga sus costes determinados.

d) Que el proyecto represente una novedad o mejora sustancial con respecto al estado anterior de acometer el proyecto. El carácter novedoso se demostrará mediante una descripción exacta de la innovación que la compare con los procesos o técnicas organizativas actualmente empleadas por otras empresas del mismo sector.

e) Que el proyecto comporte un grado evidente de riesgo. El riesgo se demostrará teniendo en cuenta los costes del proyecto en relación con el volumen de negocios de la empresa, el tiempo necesario para desarrollar el proceso, los beneficios que se esperan obtener de la innovación en materia de procesos con respecto a los costes y la probabilidad de fracaso.

f) Que el resultado del proyecto objeto de ayudas sea el desarrollo de una norma, modelo empresarial, metodología o concepto que pueda reproducirse sistemáticamente y, en su caso, certificarse o patentarse.

5.– Para las ayudas a los proyectos de cooperación para el desarrollo de nuevos productos, procesos y tecnologías, además de los requisitos contenidos en el párrafo 1, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que en el supuesto de que la persona beneficiaria sea una figura asociativa sin personalidad jurídica propia, uno de los socios sea un productor primario o pertenezca a la industria de transformación.

b) Que el proyecto de cooperación beneficie al sector productor.

***Artículo 9.–*** Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes de ayuda, cuyo modelos de impreso se contienen en los anexos I y II del presente Decreto, estarán dirigidas a la persona titular de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias, y se presentarán, bien en las dependencias del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca sita en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, o bien en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Las personas solicitantes de las ayudas, presentarán la documentación siguiente:

A) Con carácter general para las actividades subvencionables previstas en los párrafos a), b), c) y d) del artículo 6 del presente Decreto:

1) Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANaren fotokopia konpultsatua.

2) Pertsona juridikoa izanez gero, enpresaren IFKren fotokopia, ahalorde-eskriturarena, legezko ordezkariaren NANarena eta baita erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen fotokopia bana, dagokien erregistroan zigilatuta. Agiri horiek dekretu honen baitan aurkeztuta badaude, eta eskatzaileak ziurtatzen badu ez dela inongo aldaketarik egon agiri horietan, agiriak aurkeztutzat joko dira. Halere, lau deialdiren ondoren, berriz aurkeztu beharko dira.

3) Dagokion foru ogasunarekin dituen zergabetebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela erakusteko ziurtagiria.

4) Onartutako azkeneko urteko kontuen kopia.

5) TC-1 dokumentua, eskaera eskatu aurreko hilaren enpresaren.

6) Enpresaren etorkizunerako asmoak eta egoera ekonomikoa nahiz proiektuaren bideragarritasun teknikoa frogatzen duen memoria, enpresaren azken bi urteetako emaitza ekonomikoari eta etorkizuneko proiekzioari buruzko datuak eta guzti. Horrez gain, dirulaguntza eskatzen duen proiektuaren bidez enpresak abiaraziko duen I+G+B aurretik ere enpresak jada martxan zeukan I+G+B lanerako gehikuntza garbiaren balorazioa, eta enpresaren sektorearen hobekuntza orokorrerako ematen duen laguntzaren balorazioa, I+G+Bari dagokionez.

7) Kontratuaren kopia, 5. artikuluak aurreikusten duen kasuan. Baldin kontratatutako jarduera % 20 handiagoa bada dirulaguntzaren zenbatekoa baino eta zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa bada, kontratuaren zirriborroa.

8) Aurkeztutako agiri guztien egiazkotasuna eta 8. artikuluko 1. paragrafoko d) eta f) idatz-zatietan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen duen zinpeko adierazpena.

9) Erakunde eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentazio osagarri.

Dekretu honetako 4. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 3. paragrafoan zehaztutako onuradunen kasuan: 2), 3), 4), 5), 6) eta 8) azpi-ataletan adierazitako agiri horiek proiektuan parte hartzen duten enpresa edo erakunde bakoitzari buruzkoak izango dira; alegia, bakoitzari buruz agiri horiek guztiak.

B) I+G proiektuetarako laguntzen kasuan, aurreko atalean adierazitako agiri orokor horiez gain, eskatzaileek memoria konkretua ere aurkeztu behar dute. Honakoa bildu behar du, gutxienez, memoria horrek:

1) En el supuesto de ser persona física, fotocopia compulsada del DNI del solicitante.

2) En el supuesto de ser persona jurídica, fotocopia del CIF de la empresa, de la escritura de apoderamiento y fotocopia del DNI del representante legal, así como fotocopia de la escritura de constitución y los estatutos de la entidad y que deberán estar sellados por el registro correspondiente. En el supuesto de que dicha documentación haya sido entregada en el ámbito del presente Decreto y siempre que el solicitante declare que no haya existido modificación alguna de los citados documentos, éstos se considerarán como presentados. No obstante transcurridas cuatro convocatorias deberán presentarse de nuevo.

3) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con las correspondientes Haciendas Forales y hallarse al corriente de los pagos con la Seguridad Social.

4) Copia de las últimas Cuentas Anuales aprobadas.

5) TC1 de la empresa del mes anterior a la presentación de la solicitud.

6) Memoria que acredite la situación económica y perspectivas de futuro de la empresa y la viabilidad técnica del proyecto, incluyéndose en esta memoria datos sobre los resultados económicos de la empresa en los dos últimos años y su proyección de futuro. Así mismo contendrá una valoración sobre el incremento neto de I+D+I que la actividad para la que solicita la ayuda supone sobre las actuaciones de I+D+I que venía realizando la empresa y sobre su contribución a la mejora global del sector al que pertenece en cuanto a nivel de I+D+I.

7) Copia del contrato, en el supuesto previsto en el artículo 5. Cuando la actividad contratada exceda en un 20% del importe de la subvención y éste sea superior a 60.000 euros, borrador del contrato.

8) Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados y respecto a los requisitos establecidos en el artículo 8, párrafo 1 apartado d) y f).

9) Y cualquier otra documentación complementaria que la entidad solicitante desee aportar al efecto de cuantificar la ayuda.

En el supuesto de las personas beneficiarias incluidas en artículo 4 párrafo 2 apartado C, y párrafo 3 del presente Decreto, la documentación a la que se hace referencia en los subapartados 2), 3), 4) 5) 6) y 8) del presente apartado será aportada respecto de todas y cada una de las empresas o entidades participantes en el proyecto.

B) Para las ayudas a los proyectos de I+D, además de la documentación general requerida en el apartado anterior, deberán presentar una memoria concreta y detallada del proyecto que contenga como mínimo:

1) Egin beharreko ekintza eta betebeharren deskribapen zehatza, adieraziz zer motatako ikerketarako nahi den laguntza.

2) Behar bezala xehatutako aurrekontua.

3) Proiektua betetzeko epea.

4) Laguntza emanez gero, enpresaren errendimendu orokorrean zenbateko hobekuntza ekarriko duen.

C) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterketen kasuan, nahikoa izango da artikulu honetako A ataleko 2. paragrafoan esandako agiriak aurkeztea.

D) Enpresa gazte eta berrietarako edo oinarri teknologikoko enpresa berrietarako laguntzen kasuan, artikulu honetan A ataleko 2. paragrafoan esandako agiriez gain, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

1) Proiektuaren memoria zehatza eta xehatua. Honako hau azaldu behar du gutxienez:

– enpresan ezarri nahi diren produktu, zerbitzu edo prozesu berrien, edo bere sektorearen aldean nabarmen hobetu direnen, deskribapen xehatua,

– behar bezala xehatutako aurrekontua,

– proiektua betetzeko epea eta

– egitekoak diren aldaketen arrisku teknologiko edo industrialen azterketa teknikoa, eta, laguntza jasoz gero, enpresaren errendimendu orokorrean zenbateko hobekuntza ekarriko duen.

2) Eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan onartutako urteko kontuen kopia bana. Baldin eta 4. artikuluko 2. paragrafoko C atalean zehaztutako onuradunak badira, horiei guztiei buruzkoak. Eskabidea aurkeztu duten urtean bertan sortu diren enpresek ez daukate agiri horiek aurkeztu beharrik.

E) Prozesuen eta jarduera eta zerbitzuen antolaketako berrikuntzarako laguntzen kasuan, artikulu honetako 2. paragrafoko A atalean adierazitako agiriez gain, memoria zehatza ere aurkeztu beharko dute eskatzaileek, gutxienez, honako datuok azalduko dituena:

1) Enpresaren barruan egin nahi den berrikuntza motaren deskribapen xehatua.

2) Behar bezala xehatutako aurrekontua.

3) Proiektua betetzeko epea.

4) Egingo den berrikuntzaren deskribapen zehatza, eta sektoreko beste enpresa batzuek erabiltzen dituzten prozesu edo antolaketa-teknikoekiko alderaketa.

5) Proiektuaren kostuen zehaztapena, enpresaren negozio-bolumenaren arabera azalduta.

1) La descripción detallada de las acciones y tareas concretas a acometer, especificando el tipo de investigación para la que se solicita la ayuda.

2) Un presupuesto debidamente detallado.

3) El plazo de ejecución del proyecto.

4) La repercusión en la mejora que tendrán en el rendimiento global de la empresa, en el supuesto de otorgársele la ayuda.

C) Para las ayudas a estudios de viabilidad técnica, deberán presentar únicamente la documentación requerida en el párrafo 2 apartado A del presente artículo.

D) Para las ayudas a las empresas jóvenes e innovadoras y/o las nuevas empresas de base tecnológica, además de la documentación requerida en el párrafo 2 apartado A del presente artículo, deberán presentar la siguiente documentación:

1) Memoria concreta y detallada del proyecto, que contenga como mínimo:

– la descripción detallada de los productos, servicios o procesos novedosos o sustancialmente mejorados con respecto al sector al que pertenece que pretenda implantar en la empresa,

– el presupuesto debidamente detallado,

– el plazo de ejecución del proyecto y

– el análisis técnico de los riesgos tecnológicos o industriales que comporte las acciones a acometer, y la repercusión en la mejora que tendrá la acción a subvencionar en el rendimiento global de la empresa en el supuesto de otorgársele la ayuda.

2) Copia de las Cuentas Anuales aprobadas de los tres años anteriores al de la solicitud. En el supuesto de las personas beneficiarias incluidas en artículo 4 párrafo 2 apartado C, respecto de todas ellas. Las empresas constituidas en el año de presentación de la solicitud están exentas de la presentación de esta documentación.

E) Para las ayudas a la innovación en materia de procesos y organización en actividades y servicios, además de la documentación requerida en el párrafo 2 apartado A del presente artículo, deberán presentar una memoria concreta del proyecto que contenga como mínimo:

1) La descripción detallada del tipo de innovación a acometer en la empresa.

2) Un presupuesto debidamente detallado.

3) El plazo de ejecución del proyecto.

4) La descripción exacta de la innovación y comparación de ésta con los procesos o técnicas organizativas empleadas por otras empresas del sector.

5) La especificación de los costes del proyecto en relación con el volumen de negocios de la empresa.

6) Prozesua garatzeko beharrezko izango den denbora.

7) Berrikuntzak emango omen dituen onurak eta

8) Porrot egiteko arriskua eta, laguntza emanez gero, enpresaren errendimendu orokorrean zenbateko hobekuntzan zenbateko eragina izango duen.

F) Produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko elkarlan-proiektuetarako laguntzen kasuan, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

1) Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANaren fotokopia konpultsatua.

2) Pertsona juridikoa izanez gero, enpresaren IFKren fotokopia, ahalorde-eskriturarena, legezko ordezkariaren NANarena eta baita erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen fotokopia bana, dagokien erregistroan zigilatuta. Agiri horiek dekretu honen baitan aurkeztuta badaude, eta eskatzaileak ziurtatzen badu ez dela inongo aldaketarik egon agiri horietan, agiriak aurkeztutzat joko dira. Halere, lau deialdiren ondoren, berriz aurkeztu beharko dira.

3) Dagokion foru ogasunarekin dituen zergabetebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela erakusteko ziurtagiria.

4) Kontratuaren kopia, 5. artikuluak aurreikusten duen kasuan. Baldin kontratatutako jarduera % 20 handiagoa bada dirulaguntzaren zenbatekoa baino eta zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa bada, kontratuaren zirriborroa.

5) Aurkeztutako agiri guztien egiazkotasuna eta 8. artikuluko 1. paragrafoko e) eta h) idatz-zatietan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen duen zinpeko adierazpena.

6) Elkarlan-proiektuaren memoria zehatza; honakoa adieraziko duena gutxienez:

– Berritasunaren deskribapen zehatza, sektore berdineko beste enpresa batzuek gaur egun erabiltzen dituzten prozesu edo antolaketa-teknikekin alderatuta.

– Enpresaren barruan egin nahi den elkarlan motaren deskribapen xehatua,

– Behar bezala xehatutako aurrekontua.

– Proiektua betetzeko epea.

– Berrikuntza horrek prozesuetan ekarriko omen duen onura, kontuan hartuta bai kostuak bai porrot egiteko probabilitatea.

7) Erakunde eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentazio osagarri.

6) El tiempo necesario para desarrollar el proceso.

7) Los beneficios que se esperan obtener de la innovación y

8) La probabilidad de fracaso y la repercusión en la mejora que tendrá la acción a subvencionar en el rendimiento global de la empresa en el supuesto de otorgársele la ayuda.

F) Para las ayudas a los proyectos de cooperación para el desarrollo de nuevos productos, procesos y tecnologías, deberán presentar la siguiente documentación:

1) En el supuesto de ser persona física, fotocopia compulsada del DNI del solicitante.

2) En el supuesto de ser persona jurídica, fotocopia del CIF de la empresa, de la escritura de apoderamiento y fotocopia del DNI del representante legal, así como fotocopia de la escritura de constitución y los estatutos de la entidad y que deberán estar sellados por el registro correspondiente. En el supuesto de que dicha documentación haya sido entregada en el ámbito del presente Decreto y siempre que el solicitante declare que no haya existido modificación alguna de los citados documentos, éstos se considerarán como presentados. No obstante transcurridas cuatro convocatorias deberán presentarse de nuevo.

3) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con las correspondientes Haciendas Forales y hallarse al corriente de los pagos con la Seguridad Social.

4) Copia del contrato, en el supuesto previsto en el artículo 5. Cuando la actividad contratada exceda en un 20% del importe de la subvención y éste sea superior a 60.000 euros, borrador del contrato.

5) Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados y respecto a los requisitos establecidos en el artículo 8, párrafo 1 apartado e) y h).

6) Una memoria concreta del proyecto de cooperación que contenga como mínimo:

– Descripción exacta de la innovación que la compare con los procesos o técnicas organizativas actualmente empleadas por otras empresas del mismo sector.

– La descripción detallada del tipo de cooperación a acometer en la empresa.

– Un presupuesto debidamente detallado.

– El plazo de ejecución del proyecto.

– Los beneficios que se esperan obtener de la innovación en materia de procesos con respecto a los costes y la probabilidad de fracaso.

7) Y cualquier otra documentación complementaria que la entidad solicitante desee aportar al efecto de cuantificar la ayuda.

3.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Berrikuntza eta Elikagai Industrien zuzendariak ebazpena eman ondoren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

4.– Edonola ere, Berrikuntza eta Elikagai Industriako Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

***10. artikulua.–*** Epea eta deialdia.

1.– Dekretu honetan arauturik dauden laguntzetarako deia urtero egingo da, Ingurumen, Lurralde plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko titularraren agindu bidez. Hala eta guztiz ere, epe barruan aurkeztuta hartuko dira proiektuak baldin dagokion ekitaldiaren barruan aurkeztu badira, 8. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatiak hala xedatzen duenez.

2.– Deialdi horretan, besteak beste, kontu hauek adierazi beharko dira:

a) Eskabideak aurkezteko epea.

b) Gehienezko zuzkidura -Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura joango dena- 6. artikuluko a), b) c) eta d) paragrafoetan diruz laguntzeko moduko jotzen diren ekintzetarako eta, beharrezko bada, zuzkiduraren urtez urteko zatiketa. Produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko elkarlan-proiektuetarako jarriko den gehienezko zuzkidura globala, zehaztuz zenbat finantzatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik eta zenbat FEADER erkidegoko funtsetik.

c) Ekintzak, inbertsioak edo proiektuak burutzeko epea, dekretu honetako 18.3 artikuluak xedatutakoaren arabera.

d) Zein diren diruz lagundu beharreko ekintzak, dekretu honetako 6. artikuluan jasotakoen artetik, eta, lehentasunik balego, lehenetsitako ekintzak zein diren.

e) Laguntza kuantifikatzeko aukeratutako irizpide objektiboak. 14. artikuluan jasota dauden irizpideen artetik aukeratu beharko da. Beste irizpide objektiborik erabiltzekotan, fundamentuzko arrazoiak behar dira.

f) Diruz lagundu beharreko ekintza mota bakoitzerako aurreikusita daude agirien artetik zein aurkeztu behar diren, deialdi bakoitzean aukeraturiko edo zehazturiko irizpide objektiboen arabera.

3.– Si la solicitud no reúne todos los requisitos, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución de la persona titular de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– En cualquier caso, la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias podrá requerir a la persona solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada.

***Artículo 10.***– Plazo y convocatoria.

1.– Anualmente, mediante Orden de la persona titular del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, se convocaran las ayudas reguladas en el presente Decreto. No obstante se entenderán presentados dentro del plazo aquellos proyectos cuya solicitud se haya presentado dentro del ejercicio correspondiente, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8, párrafo 1, apartado b).

2.– La citada convocatoria contendrá, entre otros extremos, los siguientes contenidos:

a) El plazo de presentación de solicitudes.

b) La dotación global máxima, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, destinada a atender las acciones subvencionables previstas en los párrafos a), b) c) y d) del artículo 6 y en su caso desglose plurianual de la misma. La dotación global máxima destinada a atender los proyectos de cooperación para el desarrollo de nuevos productos, procesos y tecnologías, especificándose la cuantía financiada con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la cuantía financiada con cargo al fondo comunitario FEADER.

c) Plazo de ejecución de las actividades, inversiones o proyectos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.3 del presente Decreto.

d) Las actividades a subvencionar, dentro de las establecidas en el artículo 6 del presente Decreto, así como la determinación, en su caso, de las actividades que se consideren preferentes.

e) Los criterios objetivos elegidos para la cuantificación de las ayudas. La elección se realizará entre los criterios recogidos en el artículo 14. Podrán establecerse nuevos criterios objetivos cuando existan circunstancias debidamente justificadas.

f) La determinación de la documentación a presentar de entre la prevista para cada tipo de acciones a subvencionar, en función de los criterios objetivos elegidos o establecidos en cada convocatoria.

***11. artikulua.***– Finantziazioa.

1.– Dekretu honetako 6. artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatietan agertzen diren diruz laguntzeko moduko jardueren barruko proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira.

Dekretu honetako 6. artikuluko e) idatz-zatian agertzen diren diruz laguntzeko moduko jardueren barruko proiektuak elkarrekin finantzatuko dituzte Landa Garapenerako Nekazaritzako Funts Europarrak, FEADER funtsak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrek, halaxe agintzen baitu Euskadiko Landa Garapen Jasangarriaren 2007-2013 programak.

2.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango den laguntzak ezin du gainditu laguntza finantzatzeko gehienezko zuzkidura (deialdiaren aginduan urtero ezarriko da edo agindua eguneratzean ezarriko da), indarrean dagoen legediak jasotzen duen kredituLotespenaren araubidearen edo aurrekontua aldatzeko araubidearen arabera.

Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko hori aldatu ahal izango da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean agortu ez den aurrekonturik izanez gero, laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Berrikuntza eta Elikagai Industriako zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

3.– Laguntzak beraiei buruzko ebazpena ematen den ekitaldiko dagozkien ordainketa-kredituei egotziko zaizkie edo, urte anitzeko proiektuetan, zatikako ordainketei aurre egiteko konpromisozko kredituei, eta dena ere ekitaldian aplikatu behar den aurrekontu-itxierari buruzko arautegiari kalterik egin gabe.

***12. artikulua.***– Laguntzen kudeaketa.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Berrikuntza eta Elikagai Industrien Zuzendaritza izango da.

2.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzordea eratuko da. Hiru lagunek osatuko dute: hirurak bokalak izango dira, hitza eta botoa dutela, eta horietako bat Ikerketa Programen arduraduna izango da, bai eta Batzordeko lehendakari ere. Beste biak Arrantza eta Elikagai Industrien Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzetako langile teknikoetatik hautatuko dira, Arrantza eta Elikagai Industrien Sailburuordetzako titularraren ebazpenaren bidez; ebazpen horretan bertan adieraziko da nor izango den batzordeko idazkaria.

***Artículo 11.***– Financiación.

1.– Los proyectos incluidos en las actividades subvencionables previstas en los apartados a), b), c) y d) del artículo 6 del presente Decreto serán financiados con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los proyectos incluidos en las actividades subvencionables previstas en el párrafo e), del artículo 6 del presente Decreto serán cofinanciados con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural «FEADER» y a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme a lo dispuesto en el Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

2.– El volumen total de la ayuda a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la dotación global máxima destinada a su financiación que anualmente se establezca en la orden de convocatoria, o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente.

Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Innovación e Industrias Alimentarias.

3.– Las ayudas se imputarán a los créditos de pago del ejercicio en que recaiga la resolución de concesión y en su caso a los créditos de compromiso correspondientes a fin de hacer frente a los pagos fraccionados para el caso de proyectos plurianuales, todo ello sin perjuicio de la normativa sobre cierre presupuestario que resulte aplicable en el ejercicio.

***Artículo 12.***– Gestión de las ayudas.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas reguladas en el presente Decreto es la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias.

2.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes se constituirá una Comisión de Valoración, la cual estará compuesta por tres personas que ejerzan la condición de vocal, con voz y voto, siendo una de ellas la persona Responsable de Programas de Investigación, que será quien ejerza la Presidencia de la Comisión. Las otras dos serán elegidas entre el personal técnico de las Direcciones dependientes de la Viceconsejería de Pesca e Industrias Alimentarias, nombrados mediante resolución de la persona titular de la Viceconsejería de Pesca e Industrias Alimentarias, en la cual se designará quien ejercerá la Secretaría de la Comisión.

3.– Bideragarritasunaren azterketa egin aurretik eta Balorazio Batzordeak espedienteak baloratu aurretik, Berrikuntza eta Elikagai Industrien zuzendaritzari atxikitako teknikari batek eskaera guztiak aztertuko ditu, banan-banan. Teknikariak azterketa teknikoa eta ekonomikoa egin beharko du, artikulu honetako 4. paragrafoko a) eta b) idatz zatietan xedatutako irizpideei jarraituz. Azterketa horren ondoren, proiektua agindu honetan eta deialdi bakoitzean ezarritako baldintzei nola egokitzen zaion ebaluatzeko txostena idatziko du, eta batzordeari aurkeztuko dio.

4.– Balorazio Batzordeak ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Aurkeztutako proiektu guztiak aztertu, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertu. Baztertutako horien zerrenda osatu beharko du gero, eta banan-banan azaldu zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Aplikatzekoa den araudia betetzen duten proiektuen eskabideak ebaluatu, eta proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertu, honako irizpide hauen arabera:

– Proiektuak sortutako lehiatzeko hobekuntza. enpresaren egungo egoerarekin lotuta sartutako produktu eta prozesuak, eta aurreikusitako merkatuak.

– Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren eta bere bideragarritasunaren azterketa, eta, eskatutakoen artean, diruz lagun daitezkeen inbertsioak eta gastuak zein diren zehaztea.

– Proiektuaren balorazioa. deialdi bakoitzean ezarritako irizpide objektiboak zenbateraino bete diren.

c) Aurkeztutako proiektuetatik araudia betetzen dutenei, laguntzen balorazioa egiteko urteroko deialdi-aginduetan jarritako irizpide objektiboak aplikatzea, proiektuak baloratu eta haztatzea, eta onuradun izan daitezkeenen zerrenda ordenatua prestatzea, horietako bakoitzak lortutako puntuazioa eta guzti adierazita.

d) Ebazpen-proposamen bakarra aurkeztea Berrikuntza eta Elikagi Industrien Zuzendaritzako titularrari, ondo bereizita oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretik finantzatuko diren laguntzak eta FEADER funtsetik eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretik elkarrekin finantzatuko diren laguntzak. Proposamenak, gutxienez, dekretu honetako 16. artikuluak adierazten duena azaldu beharko du.

5.– Balorazio Batzordeak, bere zereginak bete behar horretan, Zuzendaritzako teknikariek egindako txostenak baloratuko ditu (xedapen-zati honetako 3. idatz zatian aipatzen dira txosten horiek), eta, egoki iritziz gero, aurkeztutako eskabideen espedienteetan dauden agiriak aztertuko ditu.

3.– Con carácter previo al examen de viabilidad y a la valoración de los expedientes por la Comisión de Valoración, cada solicitud será estudiada por un técnico de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias, que realizará un análisis técnico y económico del proyecto, atendiendo a los criterios previstos en el párrafo 4 apartados a) y b) del presente artículo, lo que dará lugar a un informe sobre la adecuación del proyecto a los requisitos establecidos en el presente Decreto y en cada convocatoria, y que será presentado a la Comisión.

4.– La Comisión de Valoración tendrá las siguientes funciones:

a) Examinar la totalidad de los proyectos presentados, separando los que cumplen la normativa de aplicación de los que no. Respecto de estos últimos se realizará un listado que contendrá la causa de denegación de cada uno de ellos.

b) Evaluar las solicitudes de los proyectos que cumplen la normativa de aplicación, y analizar la viabilidad técnica y económica del proyecto, aplicando los siguientes criterios:

– Mejora competitiva generada por el proyecto: productos o procesos introducidos en relación con la situación actual de la empresa, y mercados previstos.

– Viabilidad económica del proyecto: análisis del proyecto y su viabilidad, y determinación de las inversiones y gastos subvencionables de entre las solicitadas.

– Valoración del proyecto: grado de cumplimiento de los criterios objetivos establecidos en cada convocatoria.

c) Aplicar, a los proyectos presentados que cumplen la normativa, los criterios objetivos de valoración de las ayudas establecidos en las órdenes anuales de convocatoria, valorarlos y ponderarlos, y elaborar un listado ordenado de potenciales beneficiarios que contenga la puntuación obtenida por cada uno de ellos.

d) Realizar una única propuesta de resolución a la persona titular de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias, diferenciando las ayudas financiadas íntegramente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las ayudas cofinanciadas con cargo al FEADER y a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La propuesta deberá recoger, como mínimo el contenido a la que hace referencia el artículo 16 del presente Decreto.

5.– La Comisión de Valoración, en el desarrollo de sus funciones, valorará los informes que elabore el personal técnico de la Dirección de los que hace referencia apartado 3 del presente artículo, y podrá analizar, cuando así lo considere necesario, la documentación contenida en los expedientes correspondientes a las solicitudes presentadas.

6.– Artikulu honetan aurreikusitako batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezartzeko aukera izango du, eta arau horietan aurreikusi gabeko edozertarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 22-27 artikuluetan xedaturik dagoena aplikatuko dute.

***13. artikulua.***– Laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko prozedura.

1.– Laguntzak esleitzeko prozedura lehiaketa izango da. Aurkeztutako eskabideak alderatuta egingo da lehiaketa. Eskabide bakoitzari deialdi-aginduan urtero jarriko diren irizpide objektiboak aplikatuko zaizkio, eta horren arabera baloratu eta haztatuko dira. Erakunde eskatzaileen zerrenda ordenatua egingo da horren arabera; puntuazio handiena atera duena lehenik, eta hortik beherakoak ondoren. Gero, dekretu honetako 15. artikuluko portzentajeak aplikatuko zaizkie, eta horrekin jakingo da zenbat emango litzaiokeen zehazki eskatzaile bakoitzari, lortuta puntuazioaren parametroa erabiliz, alegia, zenbat eta puntuazio handiagoa lortu, orduan eta portzentaje handiagoa.

2.– Urteko deialdiko diru-zuzkidura aurreko idatzzatian ezarritakoaren arabera kalkulatutako zenbatekoei erantzuteko adinakoa bada, denei emango zaie dirulaguntza, bakoitzari dagokionaren arabera.

3.– Alderantziz, urteko deialdi-aginduak ezarritako gehienezko zuzkidura globalak ez badu ematen eskabide guztiei laguntzeko, artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera prestatu den zerrendari segika emango dira laguntzak, elkarren segidan, funtsa erabat agortu arte.

***14. artikulua.***– Irizpide objektiboak.

Dekretu honetako 10. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian xedatutakoaren kontra ez doan heinean, honako irizpide objektibo hauetatik bat edo batzuk hartuko dira kontuan proiektuak baloratzeko:

1.– Proiektuak ekarriko duen berrikuntza maila: 30 puntu gehienez.

2.– Enpresaren lehiakortasuna hobetzea, alegia, errentagarritasuna hobetzea, ekoizteko gaitasuna hobetzea edo merkatu berrietarako bidea hobetzea: 20 puntu gehienez.

3.– Aurreikusitako langile-gehikuntza, I+G+B ekintzak arrakasta edukitzearen ondorioz: 10 puntu gehienez.

4.– Sektore espezifiko batean egingo diren lanak, plan estrategikoen arabera: 5 puntu gehienez.

6.– La Comisión prevista en el presente artículo podrá establecer sus propias normas de funcionamiento, rigiéndose en lo no previsto por éstas, por lo dispuesto en los artículos 22 a 27 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 13.***– Procedimiento de adjudicación y cuantificación de las ayudas.

1.– El procedimiento para la adjudicación de las ayudas será el concurso. Se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a las que se aplicarán los criterios objetivos fijados anualmente en la orden de convocatoria, su valoración y ponderación. De su aplicación se elaborará un listado ordenado de entidades solicitantes que contendrá la puntuación obtenida por cada uno de ellos de mayor a menor. A continuación, a todos ellos se les aplicará los porcentajes establecidos en el artículo 15 del presente Decreto obteniendo la cuantía concreta que se concedería a cada persona solicitante utilizando como parámetro la puntuación obtenida y aplicando mayor porcentaje al de mayor puntuación en proporción a la puntuación obtenida.

2.– Si la dotación económica contenida en la convocatoria anual alcanzara para atender a las cantidades calculadas conforme a lo previsto en el apartado anterior, se procederá a conceder las ayudas a todos ellos por el importe de las mismas.

3.– En el supuesto que la dotación global máxima que se establezca en la orden anual de convocatoria no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes presentadas, se irán concediendo las ayudas por el orden establecido en el listado que se elabore conforme a lo dispuesto en el párrafo 1 del presente artículo, hasta el agotamiento total de los fondos.

***Artículo 14.***– Criterios objetivos.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 10 párrafo 2 apartado e) del presente Decreto, para la valoración de los proyectos, se tendrán en cuenta uno o varios de los siguientes criterios objetivos:

1.– Grado de innovación que supondrá el proyecto: hasta 30 puntos.

2.– Mejora de la competitividad de la empresa, traducido en el impacto en la rentabilidad, mejora de la capacidad productiva o mejora en el acceso a nuevos mercados: hasta 20 puntos.

3.– Incremento de personal previsto, derivado del éxito de la acción de I+D+I: hasta 10 puntos.

4.– Actividades que se realicen en un sector específico en función de planes estratégicos: hasta 5 puntos.

5.– Proiektuak Lurralde Historiko bati baino gehiago eragitea ekonomian edo gizartean: 5 puntu gehienez.

6.– Nekazaritza, elikadura edo arrantzako sektorean enpresa berria sortzeko gazteek (40 urtetik beherakoek) egindako proiektuak izatea, edo aurretiko proiektuei beste belaunaldi batez jarraipena emateko proiektuak izatea: 5 puntu gehienez.

7.– Elkarlanean aritu eta enpresa bik edo gehiagok aktibitateak martxan jarri izana, izaera juridikoa galdu gabe eta enpresa horietako batek laguntza eskatu eta jaso duela: 20 puntu gehienez.

8.– Merkatu elektronikorako proiektuak izatea: 5 puntu gehienez.

9.– Proiektua gauzatu ahal izateko, enpresak kapital publiko edo pribatuko organismoren bat kontratu izana, proiektuaren % 20 gutxienez gauzatzeko; eta organismo horren jarduera nagusia nekazaritza, elikadura eta arrantzako sektoreetan ikerketa izatea, eta «ikerketa-organismoa» izendapena edukitzea («Ikerketa eta garapena eta berrikuntzarako estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko esparru komunitarioa» (2006/C 323/01): 15 puntu gehienez.

10.– Elkarlaneko proiektu pilotuak izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko zentro teknologiko, nekazaritzako eta elikadurakoekin batera egindakoak: 10 puntu gehienez.

11.– Tokiko Ekintza Taldeek babestutako elkarlaneko proiektu pilotuak izatea, ondo errotu daitezkeenak nekazaritzaren eta elikagaien sektorean: 10 puntu gehienez.

12.– Ekoizpenaren sektorearen eta nekazaritzako elikagaien kateko goragoko mailetako enpresen artean integrazio-prozesuak bultzatzea: 10 puntu gehienez.

13.– Eraldaketa-prozesuetan eta -teknologietan ingurumen-hobekuntzak (bilgarriak birziklatzea, hondakinak kanporatu eta tratatzea) ingurumen-arloko hobekuntzak sustatzen dituzten proiektuak izatea: 10 puntu gehienez.

***15. artikulua.***– Dirulaguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak ondokoak izango dira:

1.– I+G proiektuetarako laguntzen kasuan:

a) Oinarrizko ikerketarako: dirulaguntza jasotzeko moduko kostuen % 100, gehienez.

b) Ikerketa industrialerako: dirulaguntza jasotzeko moduko kostuen % 50, gehienez.

c) Garapen esperimentalerako: dirulaguntza jasotzeko moduko kostuen % 25, gehienez.

2.– Bideragarritasun teknikoari buruzko azterketetarako:

5.– Proyectos cuya repercusión económica o social abarque a más de un Territorio Histórico: hasta 5 puntos.

6.– Proyectos realizados por jóvenes (menores de 40 años), para crear una nueva empresa en el sector agrario, alimentario o pesquero, o que supongan dar continuidad generacional a proyectos ya existentes: hasta 5 puntos.

7.– Actividades emprendidas por dos o más empresas fruto de su colaboración; sin que pierdan su personalidad jurídica debiendo actuar una de ellas como persona solicitante y beneficiaria de la ayuda: hasta 20 puntos.

8.– Proyectos referidos al mercado electrónico: hasta 5 puntos.

9.– Que para la realización del proyecto la empresa haya subcontratado, con un Organismos de capital público o privado cuya actividad principal sea la investigación en los sectores agrarios, alimentario o pesquero, que tengan la consideración de «organismo de investigación», a los efectos de lo previsto en el «Marco Comunitario sobre ayudas estatales de investigación y desarrollo e innovación» (2006/C 323/01), al menos el 20% del proyecto: hasta 15 puntos.

10.– Que sean proyectos pilotos de cooperación, desarrollados en colaboración con la red de centros tecnológicos, agrarios y alimentarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco: hasta 10 puntos.

11.– Que sean proyectos pilotos de cooperación apoyados desde los Grupos de Acción Local que puedan tener una implantación extensa en el sector agrario y agroalimentario: hasta 10 puntos.

12.– Que promuevan procesos de integración entre el sector productor y empresas de los eslabones superiores de la cadena agroalimentaria: hasta 10 puntos.

13.– Que promuevan mejoras medioambientales en procesos y tecnologías de transformación (reciclaje, embalajes, eliminación y tratamiento de residuos, etc.): hasta 10 puntos.

***Artículo 15.***– Cuantía de la ayuda.

La cuantía de las ayudas será la siguiente:

1.– Para las ayudas a los proyectos de I+D:

a) Para la investigación fundamental: hasta el 100% de los costes subvencionables.

b) Para la investigación industrial: hasta el 50% de los costes subvencionables.

c) Para el desarrollo experimental: hasta el 25% de los costes subvencionables.

2.– Para las ayudas a estudios de viabilidad técnica:

a) Enpresa txiki eta ertainen kasuan, elkarte, fundazio, enpresen aldi baterako elkarte eta ikerketa-organismoen kasuan:

1) Azterlanen kostuen % 75 gehienez, ikerketa industriala egiteko prestaketa-azterlanak baldin badira.

2) Azterlanen kostuen % 50 gehienez, garapen esperimentalerako prestaketa-azterlanak baldin badira.

b) Enpresa handien kasuan:

1) Azterlanen kostuen % 65 gehienez, ikerketa industriala egiteko prestaketa-azterlanak baldin badira.

2) Azterlanen kostuen % 40 gehienez, garapen esperimentalerako prestaketa-azterlanak baldin badira.

3) Enpresa gazte eta berritzaileen edota oinarri teknologikoko enpresa berrien proiektuetarako laguntzen kasuan. diruz laguntzeko moduko kostuen % 75 gehienez; betiere, laguntza milioi bat eurotik (1.000.000) beherakoa izango da.

4) Prozesuei buruzko eta jarduera eta zerbitzuetarako antolaketari buruzko berrikuntzarako laguntzen kasuan:

a) Diruz laguntzeko kostuen % 15 gehienez, enpresa handietarako.

